



Kalejiran eman zaio hasiera VII. Antzerki Asteari / 5

Lasarte-Oriako VII. Antzerki Astearen parte hartuko duten herritarren kalejirak eman zion hasiera antzezpenen egitarau zabalari. Ondoren Kultur Etxean lehen emanaldia ikusi ahal izan zen, hain zuzen ere, dantza garaikidea egiten duten taldeena. Ondorengo hiru astetan herriko 300 antzesle pasako dira Kultur Etxeko oholtzatik. •



Jende ugari hurbildu zen hondakinen kudeaketarako Informazio karpara. Lehenengo aldiz jarri den karpa honen helburua herritarrak kontzientziatzea da.

Birziklatzearen aldeko karpa

Hondakinak hobeto tratatzeko informazioa eman zuten Okendon

Hondakinen kudeaketa eta birziklapenaren onuren berri eman zuten larunbat goizean, Okendo plazan jarri zuten kanpaina. Goizeko 10:45etatik 13:45etara, Hondakinen kudeaketari buruzko lehenengo informazio karpara gerturatu zire-

nei gaiari buruzko informazioarekin batera, zaborra bereizteko eta berziklatzeko poltsa banatu zioten.

Guztira 400 poltsa banatzeko asmoa zuten antolatzaileek, eta herritar asko gerturatu ziren karpara. Guzti honen osa-

garri aurretik 28 orrialdeko (14 euskaraz, 14 erdaraz) liburuxkak banatu dituzte herritarren etxeetan, eduki ezberdinak azalduz: nola sortu hondakin gutxiago, objektuen berrerabilera, gaikako bilketa zuzen egiteko argibideak... •

ALBISTEA / 3

2009. urteko aurrekontuak aurkeztu ez izana gogor salatu du EAJ alderdiak

KIROLAK / 6

Isu Leihoak 2-0 irabazi zion herriko Areto futbol txapelketa finalean Buenetxeari



Iparaldeko folk doinuak kafetegian

Iparvaldeko haizea ekarri zuen ostiralean Lasarte-Oriako Kultur Etxeko kafetegira. Folk doinuak, euskaraz, katalanez eta okzitanoz kantatuak entzun ziren emanaldi bitxi eta interesgarrian. Xpression kultur taldeak eta Udaleko Gazteria eta Fes-rak sailak antolatutako kontzertura gerturatu zirenek Pirinioetako kantu herriko eta tradizionalekin ederki gozatu zuten. •



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**



ESKaintza AKADEMIKOA
34 urte pertsonak hezitzen

**Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK**



Mekanika



Elektrizitatea



Administrazioa



Mantenimendua

Energia eta ura

IEFPS USURBIL GLHBI

**AURREMATRIKULA:
EKAINAREN 1ETIK 12RA**



Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

Texaseko jubenilak koparen bila

Mundarroren aurka zuen partida bakarreko kanporaketa luzapenean erabaki zen

TXINTXARRI

Denboraldi bukaera iristear dago federatutako futbol taldeentzat. Igoera faseak eta kopa txapelketak finalerara iritsiko dira aurki eta horietan Lasarte-Oriako taldeak sartzen saiatuko dira. Horietako bat Texas Lasartearrak taldeko I. jubenil taldea dugu.

Lehenengo fasea bukatu eta kopa txapelketan sartu zen. Lehiaketa honetan, aldiz, bere taldeko bigarren postua eskuratu eta azken faserako txartela lortu zuen.

“Kopako ligaxkan ezagutzen genituen taldeak egokitu zitzaizkigun. Hasieran, zigortu asko genituen eta jokalar horiek itzuli zirenean pixkana berdinketa bat eta gero irabazitako partidak. Egia

esan partida errazak izan ziren. Aurrerago, Urnietaren aurkako partida etxean gutxi-gatik irabazi genuen eta Intxurre aurkakoa galdu. Normala da hartxintzar zelaietara ez baikaude ohituak. Eta gero Urnietaren aurka ere galtzeak, taldeko bigarren geratzea ekarri zuen,” azaldu digu Asier Cuadrado Texas Lasartearreko jubenilen entrenatzaileak.

Partida

Lehenengo astelehenean, jakin zuen bere arerioa Mundarro La Salle izango zela eta atzo jokatu zuen kanporaketa Michelingo zelaian.

Lehenengo zati kaxkarra egin zuen arren, jubenilen taldeak 1 eta 0 irabazten zihuan lehenengo zatia bukatzean. Eta, gainera, gol bat balioga-



Texas Lasartearra taldeko jubenilek luzapeneko bigarren zatian eskuratu zuten final laurdenetarako txartela.

betu zien epaileak joko kanpogatik.

Bigarren zatiko hasieran aukera gehiago izan zituen Texasek eta markagailuan 3 eta 0 jarri zen.

Baina minutuak aurrera egin eta Mundarro gora joan zen eta hamar minutu behar izan zituen partida berdintzeko.

Era honetara, partida luzapenera iritsi zen eta bertan erabaki zen guztia. Lehenengo zatian bi taldeek aukera ugari izan zituzten aurreratzeko, baina bigarren zatiko 7. minu-

tuan Texaseko jubenilek txapelketan aurrera jarraitzeko

“Nik talde kaxkarragoa zela pentsatzen nuen. Martutenen jokatzen ikusi nituen eta harritu naute. Mundarroko goitik baloia asko jokatzen du eta agin gaizki ibili gara horretan,” onartu du Cuadrado eta zera atxiki du, “gainera, zorte txarra izan dugu eta taldeko lau jokalar garrantzitsuk min hartu dute eta batzuk aldatu behar izan ditut. Hau asko antzeman da eta, batez ere, luzapenean. Azkenean mutilek atera dute

partida aurrera. Animatuak daude, baina fisikoa gehiago landu behar dugu. Luzapenean larri ibili dira.”

Final laurdena

Hurrengo astean final laurdenetan Kostas taldea aurrean izango dutela ere aurreratu digu, “atzo 3 eta 5 irabazi zuen eta bera izango da gure arerioa. Intxaurren jokatu dugu partida eta ea aurrera jarraitzen dugun. Asteazkenean horretarako egingo dugu lan,” aipatu du entrenatzaileak. •

Lehia handia herriko areto-futboleko finalaurrekoetan

Ostadar K.F.-ek antolatutako herriko areto-futboleko finalaurrekoen joaneko partidak jokatu ziren atzo kiroldegian.

Baina ez ziren horiek play-offetako partida bakarrak izan, Buenetxea eta Ainhora taldeek larunbatean atzeratutako final laurdena jokatu baitzuten.

Partida gogor eta lehiatua Buenetxea 6 eta 1 gailendu zen eta iganderako finalerdietarako txartela lortu.

Finalaurrekoak

Igande goizean jokatu ziren finalaurrekoetan, ISU Leihok, Jordi, Izkiña eta Buenetxea taldeek finalera iristeko dituzten gogoak ikusi ahal izan ziren.

Lehenengo finalaurrekoan, ISU Leihok eta Jordik partida borrokatua jokatu zuten.

Atsedaldiara 3 eta 0 iritsi ostean, ISUK lasai irabaziko zuela zirudien arren, bigarrenean, Jordiko mutilek indarrak atera eta ia buelta eman zioten emaitzari. Azke-

nean, ISU 4 eta 3 gailendu zen.

Izkiña eta Buenetxea taldeetako jokalariek larunbatean liga edo herriarte txapelketa partidak jokatu zituzten eta ez zuten denbora askorik izan indarrak berreskuratzeko.

Beraz, partida orekatua izan behar zuen, baina Buenetxeak lortu zuen oreka hori puskatzea. Palomaresen taldeak,

errazago lortu zuen aterako bidea aurkitzea eta lehenengo zatia 0 eta 2 bukatu zuten.

Baina, lehenengo finalaurrekoaren antzera, bigarren Izkiñak gogor ekin zion eta ondorioz, 2 eta 3 izan zen azken emaitza.

Beraz, hurrengo astean ere norgehiagoka interesgarriak ikusteko aukera egongo da kiroldegian oraindik guztiek aukerak baitituzte. •



Buenetxea eta Izkiña taldeek finalaurrekoan partida parekatu jokatu zuten.



Santa Ana Pala Txapelketako izen ematea zabalik dago

Aurten ere martxan da Santa Anako Pala Txapelketa. XXVIII. edizioa da aurtengoa, eta izena emateko epea irekita dagoela jakinarazi digute antolatzaileak.

Inskripzioa egiteko azken eguna maiatzaren 19a da, iluntzeko 20:00ak. Izena emateko interesa dutenek bi

tabernetan egin dezakete, Artizar tabernan edo Gure Etxea tabernan.

Honetaz gain, Txapelketari Okendo plazako frontoian emango diote hasiera, baina bertan aurrikusita dauden lanak kontutan hartuta, antolatzaileak ez dakite non bukatu dezaketen jokatzen. •

EAJ alderdiak Udalaren erabakia salatu du

■ 2008ko aurrekontuak puztu izana ere leporatu dio alderdi jertzaleak

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako EAJk bere iritzia eman du 2009rako Udal Aurrekontuak direla-eta. Asteazkenean burutu zen prentsaurrekoan, alderdiko Oskar Sevilla, Estixu Alkorta eta Kalisto Maritxalarrek gogor salatu zuten Udalaren gobernu taldeak erakutsi duen arduragabekeria, herriaren diruak kudeatzeko gastuen eta sarreraren aurrekontua ez aurkeztea erabaki duelako.

Inguruko herrietako udalek aurkeztu dutela eta Lasarte-Oriakoaren erabakia gaitzes-ten dute "ez dago aitzakiarik halako jauntxokeria egiteko. Herri erakunde batean herriaren diruak kudeatzen dituzten guztiak betebeharrak hori dute, hain zuzen ere, aurrekontuak egin eta aurkeztekoa."

2008ko aurrekontua

2008ko aurrekontuaren luza-pena eskatuko du Udalak, baina aurrekontu horren aurka ere agertu zela azpimarratu du alderdi jertzaleak.

"45 milioi eurotakoa izan zen aurrekontua, eta 2008ko apirilaren 30ean onartu zen. Garai hartan argi eta garbi



EAJ alderdiko Oskar Sevilla, Estixu Alkorta eta Kalisto Maritxalar asteazkeneko prentsaurrekoan. Arg: Arkaitz Illarramendi

adierazi genuen, eta publikoki salatu ere, aurrekontua amets bat zela, guztiz. Diru sarrera batzuk kontuan hartzen ziren, nahiz jakin, ordu-rako, sarrera horiek ez zirela inoiz iritsiko; baina, orduan esan genuen moduan, kontu bakarra zen hitz merkeak esatea, historiako aurrekonturik

handiena zelakoan," adierazi zuten.

Gainera, aurrekontu horren % 59,18 bakarrik gauzatu dela, eta urtea 3,5 milioi euroren zorarekin amaitu zela ere jakitera eman zuten.

Ardura eskatu

Hau guztiagatik, ardura pixka

bat eskatzen dio EAJk Udalarikontuak egiterakoan. "Diru sarreraren azterketa zentzuzkoa egin, hitzartuta dauden gastuei aurre egiteko bide egokiak bilatu, gastu batzuei lehentasuna eman eta beste batzuk baztertu. Betiere, gastuak ez daitezkeen sarreraren gainetik joan," aipatu zuten. •

KIROL ZERBITZUA

Udako programa aurkeztu da

Udal Kirol Zerbitzuak Uda 2009 kanpainako programa aurkeztu du dagoeneko, aurreko urteetako esperientzian oinarrituta eta udako hilabeteetan erabiltzaileen beharrei erantzuna emateko asmoz.

Jardueren artean daude aurreko urteetan arrakasta gehiena izan dutenak eta berrikuntza bezala haurtxoen-tzako igeriketa, aquagym eta piraguismoa gehitu dira.

Ikastaroetarako buruzko informazio gehiago jaso nahi duten herritarrek Udal Kirol Zerbitzuarekin harremanetan jarri daitezke 943 376182 telefono zenbakian. •

LANAK

Kirolguneko estaldura lanak ekainaren 1ean

Lasarte-Oriako Udalak esleitu du dagoeneko Michelingo kirolguneko pistaren alboak ixteko obra.

Helburua da euria egiten duenean ura sartzea saihesten duen sistema bat ezartzea.

Kirolguneko saila erabiltzaileekin harremanetan egon da, batez ere udalerriko kirol taldeetako areto futbolero eta saskibaloiko atalekin, itenbide egokia zela izan zitekeen erabakitzeke.

Lanak GTE S. A. enpresari esleitu zaizkio 158.947,09 euroko zenbatekoarengatik, eta exekuzio epea hilabete eta erdikoa izango da.

Lanak ekainaren 1ean hasiko dira eta, horregatik, kirolguneko zati hori itxia egongo da egun horretatik aurrera.

UDALEKUAK

Udalekuetan izena emateko azken egunak

Uztailaren 1etik 15era Lasarte-Oriako 67 gaztek Pradolungon hama bostaldi paregabea igarotzeko aukera dute.

Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuek antolatutako Udalekuetan kirolak, multiabentura, mendi irteerak, ginkana, natura jarduerak, tailerrak... hau guztia, 10 eta 14 urteko gazte txoekek gauza berriak eza-gutu eta ongi pasatzeko.

Udalekuetan izena emateko baldintzak Lasarte-Oriako erroladaturako egotea, haurra bere kabuz baliatu ahal izatea eta 1995 eta 1999. urte bitartean jaiotako haurra izatea dira. Izena emateko azken eguna maiatzaren 29a dela gogora arazten da. •



III. Hip Hop jaialdia. Hip Hop, break dance, graffiti, parkour,... eta oro har mugimendu honen zaleek bi erakustaldi eta topaketatan parte hartzeko aukera izan zuten larunbatean. Batetik giro bikaina izan zen Oriako pilotalekuan burutu zen III. Hip-hop jaialdian. Lasarte-Oriako Udalak lagunduta Hip-hop Elkarteak antolatu zuen. 17:00etatik aurrera zenbait Graffiti margotu ziren bertan, Break Dance erakustaldi eta tailerra izan zen, Parkourra zer den erakutsi zuten Lasarte-Oriako Soulriders gazte taldekoek eta bukatzeko kontzertua goizaldera arte luzatu zen. Hainbat talde izan ziren, horien artean, SM61+Sé+Gal2 lasarteoriarrak. Bestalde, Ostertek ere Graffiti lehiaketa antolatu zuen arratsaldean Zumaburuko eliza azpian. Ezkerreko argazkian Oriako frontoian egin zen Hip Hop jaialdiko irudia eta eskubian Ostarteren Graffiti lehiaketan parte hartu zuen kideetako bat bere lanarekin. •

Oinatz taldea Arabara doa datorren asteburuan

■ Gaubea edo Valdegoviako lurraldeari bisita egingo diote ekainaren 6 eta 7an

Valderejo parkea, Añanako gatzagak edo Nerbioi ibaiaren jaiotza izango dira Oinatz taldeak ekainaren 6 eta 7an bisitatuko dituen lekuak. Ibilbide eta leku interesgarriak ezagutzeko aukera izan-

go da, baita kondaira eta ohitura bereziak entzutekoa ere. Gainera, gaubela egingo da eta, eguraldiak laguntzen badu, teleskopioarekin izarrak eta ilargi betea ikusteko aukera izango da.

Oinatz taldea asteburu pasa doa oraingoan. Eguneke txangoak alde batera utzi eta ekainaren 6 eta 7an Arabako Gaubea edo Valdegoviako eremuan barrena egingo dute.

Ekainaren 6an, larunbata, goiz kotxeak hartu eta Valderejo parkera egingo dute. 1992an sortua, Arabako lehengo parke naturala izan zen. Bertan parkeko botanika eta transhumantzia eremuak ezagutzeaz gain, Eremiten kobazuloak bisitatuko dituzte.

Ostean, Villanañera joan eta Varonatarren Torrearen bisita gidatua egingo dute. Duela gutxi berriztatutako dorretxe hau, gotiko estiloko gotorlekua da. Dorretik, gainera, Batxikabo mendiaren ikuspegi ederra ikus daiteke, baita haraneko herri ugariena ere.

Kanpinera egin baino lehen, Añanako gatzagak ezagutzeko aukera izango dute Oinatzeko lagunek.

Eta egunari bukaera emateko, Angosto kanpinean gaubela antolatuko dute. Ilargi betea da eta teleskopioarekin izarrak ikusteko aukera ere egongo da nahi duenarentzat, beti ere, eguraldiak laguntzen badu.

Nerbioi ibaiaren jaiotza

Igande goizean, Angostoko Santutegiaren txanda izango da. Erreka alboan eta haizpean dago santutegia eta, esaten denez, 1098an Hernando Marin artzainak Ama Birjinaren irudia aurkitu zuen lekuan.

Ostean, Santiago mendian otsotegiak eta Nerbioi ibaiaren jaiotza ikustera joango dira Oinatzeko lagunek.

Asteburu pasari bukaera emateko, Orduñako portua jaitxi eta Bizkaira egingo dute, Orduñako aduana ezagutzeko.

Oinatzeko lagunek eremu guztiko berezitasunak, historia eta kondairak ezagutzera emango dituzte, hala nola, otsotegietan nola ehizatzen zen edo Varonatarren alabaren edo Angostoko santutegi-kondairak.

Antolakuntza

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, txangoa kotxez egingo da eta Lasarte-Oriatik aha-

lik eta kotxe gutxien joaten saiatuko dira.

Bestalde, larunbateko hamaiketako, bazkaria eta afaria eta igandeko gosaria bakoitzak eraman beharko dutela jakin arazten dute. Igandeko bazkaria Orduñako taberna batean izango da.

Izena ematea

Arabako lurralde paregabe hauek bisitatu nahi dituenak, Ttakun kultur elkartearen edo 943 37 14 48 zenbakian eman dezake izena. Prezioa 20 eurotakoa da, etxola, sarrerak eta igandeko bazkaria barne. Izena emateko azken eguna ekainaren 1a izango da. •



Oinatzeko lagunek Varonatarren dorretxea bisitatuko dute. Arg: Neu



Kirola, puzgarriak, jolasak, tailerrak... larunbatean Michelingo Kirol gunean.

Haur eta gazteentzako sekulako jaialdia

Maiatzaren 30 larunbata Michelingo kirol gunean, festa nagusi izango da. Izan ere, Lasarte-Oriako haur eta gazteek primeran pasatzeko aukera ezin hobea baitute, Amaraun, Gazte Klubeko eta Eskola kiroleko jaialdian.

Amaraun Jaialdia

Hainbat gauza egongo dira etxeko txikientzat Amaraun jaialdian.

11:00etatik 13:00ak arte eta arratsaldeko 15:00etatik 17:30era puzgarriak eta tailer ezberdinak.

Honetaz gain Amaraun ludotekako txokoa, argazkia ateratzeko aukera, Amaraun klubeko panpinen aurpegien "brotxea" eta jolasak, hala nola, arrautza eta zaku karrera edo txapa zirkuia.

Material birziklatuarekin egindako *Jostailuen erakusketa* bat ere egingo da. Erakusketa honekin haurrei jolasteko eta ondo pasatzeko aukera eskaini nahi zaie, bide batez berrera-bilpena bultzatuz. Gainera, parte hartzaile guztiek saritxo bat jasoko dute.

13:00etatik 15:00etara Amaraun klubeko bazkideen bazkari ofiziala egingo da, hau 4-5 urtetik gorakoentzat izango da.

17:30etik 18:30era Amaraun panpinen ekitaldia buru-

tuko da eta 18:30etatik aurrera Txan Magoaren magia emanaldia ikusteko aukera izango da.

Eskola kirola eta Gazte Kluba

Eskola kirola jaialdia goizean burutuko da eta LH1 eta DBH4 arteko gaztetxoek zuzendurikoa izango da.

Kirol ezberdinak landuko dira adinaren arabera, honela aurrebenjaminekin kirol hastapena egingo dute jokoei esker; benjaminek goizean futbola eta atletismoa eta arratsaldean tenisean aritzeko aukera izango dute; alebinak saskibaloian eta futboleko arituko dira eta herrikoiez gain Usurbilgo Udaregi ikastolako bi taldek hartuko dute parte eta infantilak saskibaloian arituko dira.

Saskibaloiko partidak kiroldegian jokatu dira eta gailnontzeko guztia Michelingo kirol gunean. Antolatzaileek jakin arazi dutenez, izena eman beharko da bertan parte hartzeko.

Nahi duenak bokata eraman eta 15:00etatik 18:00etara Gazte Klubeko Jaialdian parte hartu dezake.

Honetan, tailer ezberdinak izango dira, biserrak, zapiak edo malabareak egitekoak, karaoke-projektorea eta quad-setan ibiltzeko aukera. •



ANAIK

JANTZI-DENDA

Udaberria
hemen dago !!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386



Herriko antzezleen kalejira koloretsua

- 300 antzerkilari inguru kalera atera ziren larunbat arratsaldean
- Dantza garaikide erakustaldia izan zen ondoren Kultur Etxean
- Hiru astetan 15 ikuskizun ezberdin eskainiko dira

Lasarte-Oriako VII. Antzerki Astea abiatzeko, herriko 300 antzezle inguruk kalejira koloretsua egin zuten larunbat arratsaldean. Kultur Etxea izan zen abiapuntu eta helmuga eta bertan izango dira hurrengo hiru asteetan 15 bat emanaldi. Ez da dudarik hurrengo antzerkiaren garrantzia dela Lasarte-Oria. Larunbatean dantza garaikidea egiten dutenek lehen emanaldia eman zuten Kultur Etxean bertan kalejiraren ondoren.

TXINTXARRI

Antzerki Astearen parte hartuko duten talde ezberdinek kolore ezberdinak hartu eta kalejira koloretsua osatu zuten larunbat arratsaldean Lasarte-Oria erdiguneko kaleetan.

Kultur Etxetik abiatuta aurretik laupabost neska mutil zihozten zankoen gainean eta ondoren Dantza Garaiki-

dea egiten dutenak ireki zuten kalejira zuriz jantzita.

Zazpi kolore

Ondoren zetozen antzerki talde ezberdinak, bakoitza kolore batez jantzita. Horrela zurien ondoren zetozen gorri, berde, urdin, laranja hori eta more kolorekoak.

Azkenean oso koloretsua izan zen kalejira eta ondoren



Kalejira oso koloretsua burutu zuten herriko antzesleek Kultur Etxetik abiatuta.



Antzerki talde bakoitzak bere kolorea zeraman soinean.

Kultur Etxean Dantza Garaikidea egiten duen taldeak emanaldi bikaina eskaini zuen.

Kalejirarekin ireki da herriko VII. Antzerki Astea. Bertan Landaberri Antzerki Eskolako

hainbat taldek parte hartuko dute. Esan bezala, guztira 300 aktore inguru igoko dira ohol-tzara, adin ezberdinetakoak, mota askotako antzerki lanak eskaintzeko.

Herrian den antzerki zale-tasuna ugaritzen ari da eta aurtin inoiz baino talde gehiago izanango dira antzerki astearen. 23 dira antzerkia egiten dutenak eta zazpi dantza garaikidea egingo dute. Dantza zale-tasuna ere ugaritzen ari da lasarteoritarren artean eta gero eta gehiagok egiten du.

Landaberri Antzerki Eskolako antolatzen du larunbatean hasi eta ekainaren 16ra arte luzatuko den Antzerki Astea. •

Zazpi haur saharar datoz oporretara

Oporrak bakean egitasmoaren aurkezpena egin zuten asteazkenean Sahararen lagunek elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak.

Uztailaren 10etik irailaren 10era, errefuxiatuen kanpamentuetako 7 haur oporretara etorriko dira herrira.

Lasarte-Oriako Udalaren laguntzari esker, 6 haur etorriko eta Donostiako Udalak bideratura beste bat.

Egitasmoaren antolatzaileek jakin arazi zuten, iazko fami-

liaz gain, aurtin azken orduan izen eman duen emakume batek ere hartuko du bere gain gatzetxo hauetako bat.

Honetaz gain, *Mundu bat* GKEak egindakoa *Garrasia Sahararik* dokumentala ikusi eta, honen ostean, solasaldia egin zen Argeliako kanpamentuan bizi diren bi lagun, Aileen eta Haouariren laguntzarekin, Saharako egoera hobeto ezagutu ahal izan zuten Kultur etxeko hitzaldi aretora hurbildu zirenek.

Oporrak bakean

Oporraldian zehar, azterketa medikoak egiten zaizkie, txangoak egiten dituzte eta, aurtin gainera, igeriketa ikastaroa izango dutela aurreratu digute.

“Haurren esperantza hona etortzea da baina behin hemen egonik, herrimina dute eta pozik bueltatzen dira haien etxetara. Bertan oso alai bizi dira, zoriontsuak dira nahiz eta gauza gutxi izan,” adierazi zen prentsaurrekoan. •



Egitasmoaren aurkezpena, Saharako egoerari buruz gehiago jakin ahal izan zen.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu/prest

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE-MONDRAGÓN MAIATZAK 28 - 17:30 osteguna 2.zikloa

AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

IRUN MAIATZAK 28 - 18:00 osteguna

AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

izena emateko epea zabalik ekainaren 19ra arte

Isu leihoak futbitoan txapeldun

2-0 irabazi zion Buenetxea taldeari. Giro bikaina izan zen kiroldegira hurbildu zirenen artean

TXINTXARRI

Isu leihoak taldeak irabazi du aurtengo Herriko Txapelketa. Hain juxtu iaz finala irabazi eta txapela eskuratu zuen Buenetxea tabernaren aurka 2-0 nagusitu ziren. Bi golak lehen zatian sartu zituen Eneko Garziandia Gartzto jokalaria. Iazko arantza atera zuten beraz Isu taldekoek larunbat arratsaldean kiroldegian jokatu zen partiduan.

Partiduaren aurretik Ostadar Kirol Fundazioak Beñat Elizalderi eman zion herriko kirolari onenari saria. Ostadarren iritzi, LOKE Lasarte-Oria kirol Elkarteko Judo talde osoak jaso beharko luke, azken urteotan egindako denboraldi bikainen omenez, baina kirolari baten lana saritzen denez Elizalde saritzea erabaki dute. Beñat berak jaso zuen saria Ostadarreko kide baten eskutik. Joxe Usabiaga odol emaleen elkarreko kideari Auzolan saria eman diote baina ez zuen larunbat arratsaldean kiroldegian egotetik izan.

Amaieran, herriko Areto futbol txapelketako sariak banatu ziren eta parte hartu duten guztiek jaso zuten euren oroigarria, baita txapelketan zerbaitegatik nabarmendu direnek ere, gol gutxien jaso dituen atezaina, jokalaria onena, gol gehien sartu dituen, kiroltasun gehien izan duen taldea,....



Kiroltasun handiz aritu ziren bi taldeak eta partidu hasieran zein amaieran elkarrekin argazkia atera zuten.

Txapelketako atezain onenari, gol gutxien jaso dituenari saria, Sergio Iñigok jaso zuen, hain zuzen ere finalean epaile lanetan aritu ondoren; jokalaria onenari saria, Javi Gomez-ek jaso zuen, eta finaleko jokalaria onenari zegokiona, Eneko Garziandiak, azken biak Isu taldekoak. Beraiek izan dira aurtien sarituenak.

Hain zuzen ere Eneko Garziandiak sartu zituen bi golak finalean, biak lehen zatian. Bigarren zatian Buenetxeako jokalariai saiatu ziren baina Kiko atezaina oso ondo aritu zen eta arrisku handiko

baloi asko gelditu zituen. Beraz azkenean 2-0 nagusitu zen Isu. Finalaren aurretik Gipuzkoako igoera faseko partidua galdu zuten Anoetako Gazte Asanbladaren aurka, 1-0, baina behintzat herrikoa irabazi zuten.

Giro bikaina izan zen harmailetan ere. Ia bete egin zen kiroldegiko harmaila.

Aurretik beste bi partida jokatu ziren. Ligaxkako finalean Epel taldeak 3-1 irabazi zion Katangari eta kontsolazio finala erabakitzeko luzapena behar izan zen. Azkenean Danenak irabazi egin zion 4-2 Siglo XX taldeari. •

Emakumezkoen kopa azken unean galdu zuen Ostadarrek

Partida ia osoan aurretik joan eta emakumezkoen Kopa eskura izan ondoren azken unean galdu egin zuen finala Ostadar taldeak Vasconiaren aurka.

Azken minutuetan sartu zuten hauek berdinketaren gola eta gero penaltietan nagusitu egin ziren.

Orain dela bi urte Ostadarrek lortu zuen Kopa penaltietan eta aurtien kontrakoa

gertatu zaio, galdu egin dute.

Final ona jokatu arren, burumakur itzuli ziren beraz herriko futbol jokalaria. Lehen zatian Izaskun San Anicetoren gola sartu eta aurretik izan ziren Ostadarrekoak azken minutuetara arte Donostiako Cesar Benito zelaian jokatu zen partiduan. Emakumezkoen Ligako kopa final hau atzo eguerdiko 12:30tan hasita jokatu zen. •

Atletismoa probatu dute alebinek ikasturte amaieran

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak antolatzen duen *Alebinen kirol sustapena* ekimenak amaiera jardunaldia izan zuen Michelingo kirol gunean larunbata eguerdian.

Bertan, ikasturtean zehar kirol ezberdinetan trebatu ostean, atletismoko probatan

iaioak diren edo ez probatu behar izan zuten.

Baina ez zen guztia kirola egitea izan, ekimenari bukaera emateko zozketa egin baitzen saioetara maiz joan direnen artean. Hala nola, patinak, kometa edo txirinda zozketatu ziren. •



Eguzkipean bero pixka bat pasa bazuten ere, ederki ibili ziren gaztetxoak.



Gimnasia erritmiko erakustaldia. Lasarte-Oriako Kirol elkarteko gimnastika erritmikoko sailak, larunbata goizean, erakustaldia antolatu zuen kiroldegian. Adin eta maila ezberdinetako neskatoak, taldeak, zein bakarka, esku hutsik edo tresnekin denboraldian zehar landutako dantzak eta akrobaziak erakutsi zituzten. Honetaz gain, gimnasten malgutasun eta tresnen, hala nola, borrak, zinta edo uztailaren, erabileran bereganatu duten trebetasuna ere ikusi ahal izan ziren. Lasarte-Oriako neskatoekin batera Andoaingo Kirol Elkarte Klubeko (AKEK) gimnastak ere bertan egon ziren. Txalo zaparrada ederrak eskaini zizkieten ikusleek neskei. •

Egunero

Erakusketa

KIRIOAK DANTZAN kamiseten erakusketa. Vanessa Gimeno-ren lanak dira eta batez ere pintura oihalean aurkituko duzue ikusgai dauden lanen artean. Jalgin, egun osoan.



Erakusketa

25. URTEURRENA OSPATZEKO LASARTE-ORIAKO BELTZAK ERRUGBY TALDEAREN argazki erakusketa ikusgai egongo da. Doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Asteazkena, 27

Antzerkia

Landaberriko Antzerki Eskolak antolatutako VII. ANTZERKI ASTEAN DBHko taldeek *Inprobisaketak* eta *Camp Rock* lanak antzeztuko dituzte. Doan. Kulturetxean. Goizeko 10:15ean ikastetxeentzat eta 19:00etan gainontzekoentzat.



Irungo ahotsak komentuan

IRUNGO KABIGORRI ABESBATZAK kontzertua eskainiko du, Danok Kide elkarteak antolatutako IV. Musika Topaketan barruan. Andrew J.P. Keelan-ek zuzentzen duen abesbatzak bidai musikala eskainiko du.

OSTIRALA 29AN, 20:00ETAN
BRIGITATARREN KOMENTUAN
DOAN

Ostirala, 29

Dantza

ZOO, PIZTI TRAJEDUNAK lan berria eskainiko du Ertza taldeak herriko haurrentzat, Lasarte-Oria dantzari 2009 ekimenaren barruan. Sarrera 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.



Larunbata, 30

Antzerkia

Landaberriko Antzerki Eskolak antolatutako VII. ANTZERKI ASTEAN helduen taldeek *Holako kontuk...* eta *komerik* eta *Etxe hauetan jakina da* lanak antzeztuko dituzte. Doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:30ean.

Djen emanaldia

ZIGOR DZ (Funk, Hip hop) Djaren saioa Ttakuntronik zirkuituaren barruan. Jalgi kafe-antzikian, 23:00ean.

Oharrak

Herri batzarra

Gaur, hilaren 25a, arratsaldeko 19:30ean herri batzarra antolatu du Ezker Abertzaleak Xirimirin Europako Hauteskundeak gaitzat hartuta.

Etixeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etixerate kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatzen die herritarrei parte hartzeko.

Odol ateratzak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzak egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara.

Igerilekua itxia

Igeri txapelketa dela eta Udal igerilekua datorren larunbatean maiatzaren 30ean, goizez 13:00ak arte, itxita egongo da erabiltzaileentzako.

Pista Estalia itxita

Udalaren Kirol Guneako kirol pistaaren alboetako itxiturak egokitzeko obrak direla eta, instalakuntza hau itxita egongo da ekainaren 1ean hasi eta obrak amaitu bitartean. Barkatu eragozpenak.

Denboraldi bukaerako afaria

Ostadar K.F.ko denboraldi amaierako afaria maiatzaren 30ean izango da Araetan, 21:00etan. Tiketak Ostadarreko egoitzan daude salgai maiatzaren 27ra arte.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Eskutitzak

Diruz lagundutako autoak, kontrako bidean

Zapaterok joan den astean krisiari aurre egiteko Parlamentuan iragarri zituen neurrietako bat erositako auto berri bakoitzeko 2.000 euroko diru-laguntza izan zen. Hori esan eta berehala Iraunkortasun Legea ere iragarri zuen. Iraunkortasunik ezaren edo ezin eutsizkoaren sektore paradigmaticoa bat baldin bada, hori autoen sektorea da. Baina, tira, egia esan, ez gintuen harritu Zapaterok gauza bat bestearekin nahasteak; izan ere, agintatariak horrelakoetara ohituta gaudak; horiek, badakizue, basoa bota eta gero bertan parke natural bat egingo dutela esateko gauza dira. Harritu gaitu, berriz, 2.000 euroko

diru-laguntza horien inguruan iritzi kritikorik entzun ez izanak. Gure ustez, horrelako neurri batek gutxienezko gogoeta kritikoa merezi du, batez ere -baina ez derrigorez soil-soilik- ezkeriar edo aurrerazaleen aldetik.

Bai, badakigu oso neurri "popularra" dela, autoarekiko sentitzen dugun tira ia-ia gure DNAn txertatuta baitago. Alabaina, egin diezalogun geure buruari pare bat galdera: auto berri bat erostea diru publiko laguntza zuzena al da? Ez ote da neurri diskriminatzailerik? Beste modu batean esanda: zergatik lagundu diruz auto berri baten erosketa eta ez herritarrek beharrezkotzat jo dezaketan beste edozein produktu edo zerbitzu?

Baina galdera horrek irekitzen duen gogoeta-bidea zabalegia da, beharbada.

Horregatik, bide hori estutze aldera, gogoeta garraio edo mugikortasunaren arrastora ekartzea proposatzen dizuegu. Galdera honako hau litzateke: zergatik lagundu diruz auto berri baten erosketa eta, aldiz, autobus edo trenbideko zerbitzuaren prezioak urtero-urtero igotzen jarraitu? Sarri IKPren gainera, igoerak dira, gainera; gogoan izan, bestela, aurrean bertan RENFEko aldiriko zerbitzuena. Krisiak ez ote du eraginik garraio publikoa erabiltzen duten herritarrengan? Eta, baldin badu, zergatik diskriminatu? Krisiaren eragina txikiagoa al da garraio publikoaren erabiltzaileengan auto-ekoizleengan baino?

Autoen sektoreak pisu handia du ekonomian eta horren inguruan lanpostu pilo bat dago, bai, horretaz ez dago

duda egiterik. Baina krisia dela-eta edo krisiaren aitzakia hartzen diren neurri guztiak, edozein direla ere, akritikoki onartu behar al dira? Esaterako, Bankari (are) diru gehiago ematea ez zaigu zuzena iruditzen, ezta hainbat eta hainbat enpresek ERE iruzurtiak aurrera eramateko aprobetxatzea ere. Bada, modu berean, ez ote gure autoen diru-laguntzen inguruan gogoeta kritikorik egin behar?

Lakuako Gobernuak esan du bere gain hartuko duela dagokion diru-laguntzen zatia, 500 euro, alegia. Iruñekoak, berriz, Zapaterok berak baino lehen proposatu zuen auto berrien erosketa diruz laguntzea, eta 500 euro beharrean 700 emango omen ditu. Gauzak horrela, eta garraio publikoaren erabiltzaileak

nolabait konpentsatze aldera besterik ez bada ere, bi gobernuon mende dauden autobusedota tren-zerbitzuak aurrean, behintzat, ez dira garestitutako, ezta? Ez esan asko eskatzea denik!

Bukatu aurretik, aurrezteko eta, ondorioz, krisiari aurre egiten laguntzeko neurri berri baten inguruko eztabaida proposatu nahi dugu: Auto Egunari eta antzekoei begira erakunde publikoen aurrekontuetan dauden diru guztiak kentzea. Azken batean, administrazioek garraio-politika hain modu nabarmenean kontrako bideetik gidatzen dutela ikusirik, zertarako ibili dirua Autorik gabeko Egunaren eta antzekoen propagandan xahutzen?

Juan Mari Beldarrain,
EGUZKiko kidea

Zazpiak bat

■ Lasarte-Oriako Bertso Eskolako zazpi kidek bat eginik txukun egin zioten aurre Andoni Egaña txapeldunari. ■ Nulotzat jo zuen epai mahaiak konbatea

Andoni Egaña txapelduna onik atera zen Lasarte-Oriako Bertso Eskolako botatako desfaiotik. Azkenean epai mahaiak borrokaldia hutsean utzi zuen, ez bata ez besteak ez zuen bestea nabarmen txikitu eta agian hurrengo urtean beste borrokaldi eta round batzuk egingo direla aurreratu zuen epai mahaiaren ordezkari lanetan aritu zen Joxe Kruz Labakak. Boxeo borrokaldi itxura hartu zuen desafioak, asaltotan banatuta, bakoitzean Bertso Eskolako ordezkari batzuek aritu ziren Egañarekin lehian. Arrieskaleta elkartean afaldu zuten 50 lagunek ondo pasa eta makina bat txalo jo zuten. Bertso eskolako zazpi lagunek talde bat osatu zuten eta lan gehiena egin zuena Andoni Egaña izan zen, banaka edo taldean denei aurre egin behar izan baitzuten. Egia esan oso ondo defenditu zen eta berriro txapela janzteko hautagai dela erakutsi zuen.

JON ALTUNA

Andoni Egaña bertso eskolako zazpi kideren aurka aritu zen, hasteko Zigor Iriondo eta Iñaki Petxarroman izan zituen aurrean, ondoren Asier Azpiroz, Beñat Iguaran eta Ane Labaka gaztetxoak, gero Evaristo Pikabea eta azkenik Unai Muñoa, azken bi hauek banaka. Pablo Suberbiolak jarri zituen gaiak eta Joxe Labakak jaso zituen asalto bakoitzean txandaka epaile izan ziren ikusleen botoak.

Boxeo borrokaldi moduan planteatu zuten lehia eta asalto bakoitzean mahai batek zeukan erabakia. Lehen lau asaltoen ondoren bina ziren Egaña eta Lasarte-Oriako Bertso Eskola, berdinketa hausteko beste bi asalto jokatu ziren baina ez zen hautsi ezta azken buruz burukoan ere, beraz hurrengo urterako hitz-ordua jarri amaitu zen saioa.

Lehen asaltoan Petxa eta Zigor aritu ziren Lasarte-Oriako taldean baina lehen mahaikoek

6 puntu eman zitoten Egañari eta bakarra bertso eskolari.

Ondoren Azpi, Ane eta Beñat gazteek lortu zuten lehen puntua herrikoentzat (3-5). Egañari lan zaila jarri zion Suberbiolak errima berbera erabili behar baitzuten hiru bertsolari gazteei emandako erantzunetan. Hamarreko hiru bertso bota zituzten bakoitzak, beraz meritu handiz 45 bertsoetan errima berbera erabili zuen eta poto nabarmen bat bakarra egin zuen Egañak.

Evaristo Pikabea ere puntua eman zion Lasarte-Oriari, zazpi boto eskuratu zituen eta hiru Egañak hirugarren mahaian. Evaristok saio polita osatu zuen eta "filarmonika" jotzen bukatu. Egañak todoterrenoa dela erakutsi zuen berriro eta berak ere jo zuen fandango bat eskusoinuarekin.

Azkenik Unai Muñoa eta Egaña aritu ziren librean. Saio luze eta atsegina osatu zuten eta laugarren mahaia irizitziz, txapelduna nagusitu zen 6-2.



Lasarte-Oriako helduen bertso eskolako zazpi kidek bat egin zuten Egañari aurre egiteko. Esperimantu polita izan zen.

Berdinketa hausteko beste bi saio egin zituzten: gaztetxo-en aurrean Egañak antzerki edo imitazioak ere egin zituen, Sebastian Lizaso eta Mañukortaren paperean aritu baitzen, eta 6-1 nagusitu zen.

Azkenik Zigor Iriondo eta Petxak azken asaltoa bereganatu zuen 5-0 emaitzarekin eta berriro ere berdinketa zen markagailuan. Hau hausteko azken saio bat egin zuten denek batera. Egañak boxeorako aurkariak zituzten dohain eta ahuleziak bilatu behar zituen hauengan eta ederki moldatu zen.

Evaristori argala izanik



Andoni Egaña eskusoinua jotzen.

haize apur bat ateratzen bada bakarrik eroriko dela bota zion; Aneri ausardia falta kolpe erabakior bat emateko; Beñaten akatsa zintzoegia izatea dela, Petxak pentsamendua alaban jarrita daukanez otzan ikusi zuen, Azpiri Zubietarra izanda Lasarte-Oriako taldean aritzea leporatu zion, Zigorri berbetan duen trebetasuna bertsotan ez izatea eta Unairi berak bakarrik egiten duela konbatea. Baina esan bezala berdinketa ez zen hautsi.

Giroa bikaina izan zen Arrieskaleta elkartean burutu zen afarian eta baita gero afa-losteko bertso saioan ere. •

Salesianos Urnieta Salesiarrak

Lasartetik hamar minutura autobusez ¡A 10 minutos de Lasarte en autobús!

Ergoien, 6 - 20130 Urnieta
Tel. 943 551 789

Gure helburua:
Zure etorkizuna

IKASTETXEA EZAGUTZEKO JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS

maiatzak 30 de mayo sábado / larunbata (10:00 - 13:00)

Nuestro objetivo:
tu futuro

Electrónica
Elektronika

Zikloak

Impresión
Imprimaketa

Artes Gráficas
Grafikagintza

Mecánica
Mekanika

Gipuzkoan BAKARRA

www.salesianosurnieta.com